



Hernaniko kronika.net TOKIKOM

Osteguna, 2012/01/19

Kronika.net

Argazkiak

Elkarrizketak

Jasota Bezala

Inkesta eta Eztabaida

Zerbitzu eta Helbideak

Agenda

Kronika Bereziak

Dokumentuak

Egin Bazkide

AURREKO EDIZIOAK


Aukeratu nahi duzun
data

2012
urtarrila
18

BILATU

Kronika Zaharrak

KRONIKA.NET



2012KO TXOTX DENBORALDIA

Josune Bereziartuk irekita hasiko da igandean Hernaniko txotx denboraldia

Eskalatzaile haundiak emango du aurreneko sagardo kolpea Plazan, eguerdiko 12:00etan; eta ondoren izango da sagardo berria probatzeko aukera. Trikitilariak, txalapartariak, eta Mugerza aizkolaria eta Perurena harri jasotzailea izango dira beste protagonistak.

2012/01/16 - Astelehena

hernaniko Sagardo Denboraldia igande eguerditik aurrera izango da ofizialki zabalik. Josune Bereziartu eskalatzaile haundia aukeratu du aurten Txotx Batzordeak aurreneko sagardo kolpea emateko. Eguerdiko 12:00etan egingo du txotx Bereziartuk, hernaniar asko testigu dituela. Ondoren, nahi duen guztiak izango du kupeletara gerturatu, eta sagardo berria probatzeko aukera.

Eskalatzaileen artean erreferentea, mundu mailan

Azken urteetako ohiturari jarraituz, Txotx Batzordeak pertsona edo talde bat aukeratzen du denboraldia irekitzeko, eta aurten, Josune Bereziartu hautatu dute egun seinalaturako. Azaldu dutenez, asko dira Bereziartu aukeratzearen arrazoiak. Horien artean bat da, Bereziartu emakume eskalatzaileen artean erreferentea dela, mundu mailan: «urte guzti hauetan, munduko eskalatzaile onenetako bat bihurtu da Bereziartu. Hernaniko sagardoa maila hori bera lortzeko bidetik jarraitzea nahi dugu».

Eguerdian, festa

Sagardoaren festa hastera doala abisatzeaz arduratuko dira trikitilariak igande goizean. 11:00etatik aurrera Hernaniko kaleak girotzen ibiliko dira. Eguneko momentu nagusia, 12:00etan izango da, denboraldia zabaltzen denean; eta handik

BILATZAILEA

Idatzi bilaketa hitza(k)

BILATU

GAURKO KRONIKA



ARGAZKIAK



IKUSI



AÑARBE -
UHOLDEETAKO
TXOSTENA

aurrera, erabatekoa izango da festa. Txalapartariak jarriko dute doinua, eta aizkolari eta harrijasotzaileak sasoia eta indarra. 13:00etan hasita, herri kirol saioa izango da Plazan. Aizkorarekin, Ugaitz Mugerza ariko da. Eta harria jasotzen, Iñaki Perurena haundia.

Apirilera bitartean, ekitaldi ugari

Txotx denboraldia igandean hasi, eta apirileko azken egunera arte luzatuko da. Tarte horretan, sagardoa eta sagardotekiak izango dira protagonista, zalantzarik gabe. Hernaniko Udalak ordea, beste hainbat ekitaldi antolatzen ditu, denboraldiaren bueltan: antzerkiak, kontzertuak, kirola... Horiek guztien artean bada bat, urtetik urtera indar gehiago hartzen ari dena: Sagar Lasterra. Otsailaren 25ean egingo da aurten; beraz, parte hartu nahi dutenek badute entrenatzen hasteko garaia. Gainerako ekitaldiei dagokienez, Udala lanean ari da egitaraua zehazteko, eta Hernaniko Kronikak igandeko edizioan argitaratuko du, Txotx Denboraldiaren inguruko gehigarri berezian.

Sagardoaren mundua ezagutzeko pakete turistikoa, nobedadea

Aurten nobedade gisa, pakete turistiko bat egin dute, sagardoaren historia eta erdi aroko Hernani ezagutzeko. Zortzi pertsonentzako taldeei dago zuzendua, bost hizkuntzatan: euskera, gaztelania, katalana, frantsesa eta ingelesa. Paketea hartzen duenak, ondorengoa egiteko aukera izango du, gida baten azalpenekin: hirigune historikoan barrena ibilbidea oinez; inguruak ezagutu txu-txu trenean; sagardotegi batean kata; eta sagardotegi batean bazkaria eguerdian.

IGANDEKO EGITARAUA

11:00-11:45 Trikitilariak kalean zehar.
12:00 Ekitaldi nagusia Josune Bereziarturekin.
12:00 Txalapartariak
13:00 Herri kirolak: Ugaitz Mugerza aizkolaria eta Iñaki Perurena harrijasotzailea

TXOTX DENBORALDIKO EGITARAUA

Otsailak 25
VI. Sagar Lasterra.

***Denboraldirako antolatu dituzten gainontzeko ekitaldiak Hernaniko Kronikak igandeko gehigarri berezian argitaratuko ditu.**

 Zabaldu!

Atzera egin | Inprimatu | Norbaiti bidali

web mapa | kontaktua

THEMOVIE S.L.-k garatua, 2005

BEHOBIA-
DONOSTIA
Hernaniarren
saikapena

BEHOBIA-
DONOSTIA Saikapen
orokorra



**BESTE
HEDABIDEAK**
TOKIKOM

ANBOTO:
30.000 euroko laguntza
kooperazio beharretarako

ANBOTO:
Gruas Artetxek 10 edo 14
kaleratze iragarri ditu

TTIPI-TTAPA:
Malerrekako pilota
txapelketan seniorren
bigarren mailako lehen
jardunaldia osatu da

DOBERA BLOGAK

ZUBIETA-SOS:
Greenpeace: ?Plasma
arkua, gasifikazioa eta
pirolisia hondakinak
errauteko teknikak dira?

BHIGURASOAK:
Hezkuntza proiektua ?
zirriborrea